

# EUZKADI'KO JAURLERITZA'REN AGERKUNA EUZKALERRI'ARI

Franko buruzagiaren eriotzak, bakaldun bezela, laterriaren buru izateko, oñorde bat jarri-erazi duen egunetan, 1.936'ko uztailaren 18'garrenetik eraturako jaurgoak eman dituen legeen arauz, Euzkadi'ko Jaurlaritza'k, galdekizunez, erri-jaurgo-zaleak diran erriketa ta langile-alkartasunen euzkal-indar azkeek eratu dituzten erakundeai dei-egin die, Euzkadi barruan eta Euzkadi'tik at, beren ordezkaria bezela, agerkun au bazterretara bialtzeko xedeaz.

Erakunde oiek Euzko Onuemale Batzordia, Buru-egiteko Batzordia ta Batzorde Ordezkaria izan dira.

Gaurko gure agiri onen oñarri bereziak, noski, auetxek ditugu : Gure Erria ta España'ko laterria inguratzen dituzten beste laterrietan agertzen diran goraberai buruzko usteak, izan ote liteken eratorkeraren azpegiak, eta Euzkadi'ren « egipenez »'ko egokera, bai ta España'ko Laterri'an dagozen beste Erri'ena ere.

Beraren errotiko euslea, azkenez azkatasunezko pakera, zuzentzara ta gizonen eta Erri'en eskubideekiko begirunera eltzeko, euzkaldunek eta geuk bereziki, sutzuki agerrerezitako naimena da, izan ere ; elburu oien alde ari-izateko, 1.936'garrenean egin ziguten gudari erantzun bear-izan genion, ta ordudanik ona, aldatzeke, bidean berean aurkitzen gera.

Aurreko esanaldietan aipatutako jazokunak, aberkide guzien aurrean ain argi agertzen diralarik, alperrik dala dirudi, oiei buruz xeetasunez ari-izatea.

Orrela, Agerkun au, urrengoko zeatz ertsien aipatzean labur diteke :

1. — Erriketari buruz, España'ko Laterri'aren egokera lengo berbera da, ots, 1.936'garrenean zutik zegozen hitlertarren eta fatxistaen eraketaen laguntzaz sortutako indar-matxidanak jarri zuena ; orduko lagun aiek, gero, 1.939'garrenean, erri-jaurgoen aurkako guda orokarra sorrerazi zutelarik. Geroago egin ziran itxurazko galdekizunak eta sasi-lege-bideak, bai ta erri-jaurgodun errialdeen pakerako naimenaren alde, beren autarkiak, berandu bazan ere, ortarako erabilirik izan ziranean be, iñoiz etziran oniritzita azkatasunean eta erri-jaurgoaren arauz espainarren aldetik ; noski, lendik, mintzatzeko, biltzeko ta alkartzeko ezinbesteko eskubideak, laterritarrenak erabiltzeko, onarturik izan etziralako.

2. — Erri-jaurgo-biziaren zaintza oiek berriz bidean jatzeak, auxe eskatzen du lenengoz eta bearrez : espetxeetan dagozen guzien azkatasuna, epaiturik izan ala ez, ain zuzen eskubide aien alde jokatu dutelako ; jarraitutako auzi ta epaibide guzien uztea ; ta erbesteratuei erritarren eskubide guzien jabetza onartzea.



3. — Erriari, zaintza ta eskubide guzi oiek berriz onartzea, berealaxe asi ta jarraiturik izan bear da, gerorako uzten bada, galaraziko eziñak izango diran guda-egokeraetan sartu nai ezpada ; orrelakorik gerta ala ez gertatzeko, eztira aski izango españarren xede onak ez eta beren mugaen barnean zutik egon ditezken beren erakundeak ere ; ortan, muga oien ondoan ala urrutian dagozen beste laterrietan sor ditezken ondorioak eraginkor izan ditezke ; ta ar litezken bideak naiz jazokunak noraño el ditezkenik iñork ziur ikusi ezin dezakelako. 1.936'garrenean asi ziran egipenak urbil dauzkagu oindiño, azturik izan ditzakegun.

4. — Goraxeago aipatu dugun elburuarekiko, Batzorde Ordezkarí'an dagozen erriketa-indar eta langileen alkartasunek berri au eman digute oraintxe : Katalunya ta Galizia'ko beste erriketa-indarrekin batera etorri dirala ; bai ta Erri-jaurgo-zaleen Bateratzeko Alkartasuna, gaur baturik dagozenekin, eratzea indartzeko ere. Onarri oietatik esi-ta, ekintzetan ari dira ororen alkartzea aunditzeko bidean, España'ko Laterri'an erri-jaurbidea, zabaldua ta alkartuta lortzeko gogoaz, bai ta Euzkalerri'aren eskubideak onartzeko ere.

5. — Errikerari buruzko beste bide berri onen aurrean, esandako indar guziek Euzko-Jaurlaritza aitzakotzat artzen dute ; erbestean egonarren, Eukal-erri'ak, bere naimenaren bidez, azkatasunez eta azkenez emandakoaz, legeari buruz autatu zuen bakarra bezela, ta orrela jarraituko da Erri'ak berriz beste Jaurlaritza berria autatu arte. Baietza au, erriketa-indar eta langile alkartasunak osotzen duten Batzorde Ordezkarí'ak ere berdin egin du.

Orrela jarritako erakundea ezta, iñola ere, iñorenganako zemarik, ez eta Erri guziaren eta erritar guzien eskubideak berriz onartzeko ekintzan gelditzekoa ere. Erritar guziek, bein eskubide guziak berenganaturik, erriketari buruz beren gerokoak erabakiko dute, erri-jaurgoari dagozkion egipen bereziak erabiltzen eta oztoporik gabe. Ez aurrekoan izandako indarraz, ez gerorako bildurrez, ez eta erbestetik el ditezken eragipenak jasanez, Euzkadi'ko erritarrai, egiturak eta jarraitzeko norabidea autatzea, erabakitzeko egokia ta berezkoa izango zaie ; bi ta jokatzeko neurria ere, auxe gure Erria ezinbesteko eraz sartuta dagoen eta izango dan gizartearen eratorkerak aginduko duen eraz-izateko noski.

Eta auxe da ben-benetan uste duguna : eratorkera orren alkarrekin izango dugun ikuspeneri eustetik, Euzkadi'n ororen egipena ere sortu ta jarrai alizango dala, liskar eta apentzerik gabe, ororen alkartasun bareturik izateko, ta orren bidez erriketa ta enderrizko gure nortasuna sendo bizi dedin tinkotzeko, edestian barna ainbeste zoritxarrak jasan ondoren ere. Ainbeste azalpenak ematen zaizkion edesti ori.

Bayona'n, 1.975'ko azilaren 21'garrenean.

EUZKADI'KO JAURLARITZA.